

Druidak Zesarren testuetan

Garbiñe Agirre Urteaga
Laudioko Aiala Kantzelaria B.I.ko irakaslea

Zesarren *De bello gallico* idazlanak K.a. 58tik 50era arteko Galietako guda kontatzen du zazpi liburutan. VI. liburuan digresio bat egiten da Galia eta Germaniako ohiturak ezagutarazteko (VI, 11-28). Galiako gizartea azaltzerakoan druidak aipatzen dira. Jatorrizko latinezko testua gaika banatu dugu eta euskal itzulpena eman ondoren, testuak dioenari azalpenak egingo dizkiogu. Eranskin gisa druidei buruzko beste testu klasiko batzuez gain, Robert Graves-en *Claudio el dios y su esposa Mesalina* liburutik druidei buruzko zati baten itzulpena eta *Jon Miranderen idazlan hautatuak* liburutik beste pasarte batzuk eskaintzen ditugu.

Caesar's literary work *De bello gallico* has been divided into seven books, which tell the wartime in Gaul between 58 and 50 b.C.. To understand and get to know the customs of the ancient Galic and German civilizations a digression has been made in the VI book (VI, 11-28). At the same time the Galic society is being explained, a unique figure, the druid, can be acknowledged. We have divided the original latin text into different subjects. Once it has been translated into Basque we will add some explanations about what the text says. As a brief appendix some classical texts about the above mentioned figures have also been displayed. In the same way, we have added a translation about the same theme from Robert Graves' book *Claudius the god and his wife Mesaline* together with some other selected texts of *Jon Miranderen idazlan hautatuak*.

Sarrera

Latin-eskoletan hainbestetan itzuli dugun Zesar dakargu honako honetan ere baina gure asmoa Zesar tipikoa-rengandik zerbait aldendu eta Zesar erakargarriarengana hurbiltzea litzateke.

Zenbatetan ez ote digute aurpegiratu gaur egungo gizartean ez dutela inolako esanahirik itzultzeko erabiltzen ditugun aspaldiko guda-kontakizun horiek! Zesarrek erabiltzen duen hizkuntz maila egokia baldin bada gure eskoletarako pasarte erakargarriak aurkitzea besterik ez dugu, edo auke-ratzen ditugunak erakargarri egitea.

Druidek Galiako apaizgoaren pertsona-klasea osatzen zuten; pribilejiodun taldea zen. Haien esku zegoen maila goreneko gazteen hezkuntza, justizian hartzen zuten parte, eta eragin garrantzitsua zuten erabaki politikoetan. Erromatarrek batez ere eragin politikoarengatik erasotzen zieten.

Ildo honetatik doaz druidei buruzko pasarte hau aukeratzeko erabilitako irizpideak. Batetik, oso ezaguna da Gosciny eta Uderzo-ren *Asterix eta Obelix* komikietan azaltzen den Panoramix druida. Komiki hauen inguruan egin diren hizkuntza guztietarako itzulpenek (latina barne), maketek, bideoek eta latin metodoren batek ere erruz lagundu dute pertsonaia honen zabalpenean. Bestetik, Gravesen tamainako idazle popular batean ere aurkitzen dugu gaiaren islada. Gainera gaur egunera arte bizi-bizirik heldu den gaia da, ba omen direlako gure artean antzinako ohiturei jarraitzen zaizkien druida-elkargoak. Gure artean zelden kulturak izan duen harrera onak ere bultzatu gaitu gai hau hartzera,

kultura honen baitan geratu baitira Europako beste hizkuntza "minorizatu" batzuk, hala nola bretoia (Bretainia), gaelikoa (*Gaelic*), manaera (*Manx*), irlandera, kenbrera (*Welsh*) eta kernekera (*Cornish*). Azkenik, euskal literaturarekin ere badu lotura, Jon Mirande idazlea *Druiden Eliza Paganoa* zela-koan partaide izan baitzen *gutuatra* ('jainkotasunaren deitzaile') postuan.

Hau guztia kontutan izanik eskole-tan ere erabiltzeko moduan aurkezten dugu material hau.

Kasu horretan, gaiari sarrera egokiena *Asterix eta Obelix* komikiko pertsonaien aurkezpena (guk III. eranskinean eskaintzen duguna) latinetik euskarara itzultzea dela deritzogu; pertsonaia hauen inguruan ekoizten den material guztia ere erabilgarria litzateke baina beti ere gure pertsonaia druida erdian dugula.

Ondoren Zesarren testura pasatuko ginategi. Gaika banatuta aurkituko duzue, osoa zein zatika itzul daiteke eta atal bakoitzaren *realia*-en azalpenak zein ariketa morfosintaktikoak egin. Eskaintzen dugun materialarekin beste iturri klasikoak erkatzea litzateke ariketa egokia.

Amaitzeko, Graves-en testua irakurri eta bai Zesarren pasartean eta bai gainontzeko iturri klasikoetan irakurri dituztenak identifikatuko dituzte Graves-en idazkian, eta nobela historikoaren fideltasunaz egin daitezke gogoetak.

Musika aldetik, itzulpen-saioak atseginagoak eta girotuagoak gerta daitezzen Bellini-ren *Norma* (1831) edo Catelani-ren *Carattaco* (1841) entzun daitezke, biak zelden lurraldea eta druiden giroa isladatzen dutenak.

Bibliografian aipatzen den Morgan Llywelyn-en *El Druida* liburuak oso egoki azaltzen du druiden bizimodua.

Hauek guztiak ez dira latin-testu baten inguruan egin daitezkeen ariketen artetik ideia gutxi batzuk baino.

Irakasle guztiek igerriko dute hau lanik errazena dela; gero dator benetako lana, material hau guztia programatzea, lortu nahi ditugun helburuei egokitzea eta gelaratzea. Orduan bakarrik jakingo dugu lan honek merezi izan duen ala ez.

Zesar, *De bello galico* VI, 13-18

Galia eta bertako pertsona-klaseak

XIII. (1) In omni Gallia eorum hominum qui aliquo sunt numero atque honore genera sunt duo. Nam plebes paene servorum habetur loco, quae nihil audet per se, nullo adhibetur consilio. (2) Plerique, cum aut aere alieno aut magnitudine tributorum aut iniuria potentiorum premuntur, sese in servitutem dicant nobilibus. In hos eadem omnia sunt iura quae dominis in servos. (3) Sed de his duobus generibus alterum est druidum, alterum equitum.

Druidak apaiz. Sakrifizioak

(4) Illi rebus divinis intersunt, sacrificia publica ac privata procurant, religiones interpretantur: ad hos magnus adulescentium numerus disciplinae causa concurrat magnoque hi sunt apud eos honore.

Druidak epaile

(5) Nam fere de omnibus controversiis publicis privatisque constituunt

XIII. (1) Galia osoan bi dira maila eta ohoreren bat duten pertsona-klaseak; izan ere plebea ia esklabuen parean jartzen da, bere kasa ez da ezertan ausartzen eta inongo bilkuretan ez da onartua izaten. (2) Gehienak, zorrak, zergen tamainak edo boteretsuen gehiegikeriak estutzen dituztenean, nobleen zerbitzura sartzen dira. Haiengan, jaunek esklabuengan dituzten eskubide berberak dituzte. (3) Baina bi pertsona-klase hauetatik bata druidena da, bestea zaldunena.

(4) Haiek jainkoei buruzko gaietan hartzen dute parte, sakrifizio publiko eta pribatuez arduratzen dira, erlijio-gaiak azaltzen dituzte: haiengana gaztetxo-kopuru handi bat biltzen da ikastearren, eta beraiek ohore handia dute galoen artean.

(5) Izan ere, ia eztabaida publiko eta pribatu guztiei buruz erabakitzen

XIII.1. *aliquo sunt numero*: 'garrantzia izan, kontutan izan...' (dat. + *sum*). / *plebes*: *plebs* nominatibo singularraren era arkaikoa da.

XIII.2. *aes alienum*: 'zorrak' dira, *aes suum* 'dirua mailegatzan duenaren dirua' da. / ... *dicant nobilibus*. In *hos eadem*...: Oxford edizioak *quibus* gehitzen du *add. Dinter* oharpean (...*dicant nobilibus, quibus in hos eadem*...). / In *hos (= plebem)*... *sunt (nobilibus)*: 'nobleek plebearengan dute'... (dat. + *sum*) / *quae (sunt) dominis*: 'jaunek' (dat. + *sum*).

XIII.4. *magnus adulescentium numerus*: nobleen artekoak besterik ez Ponponio Melak (III, 2) dioenez: «docent multa nobilissimos gentis clam, et diu, et vicennis annis». / *apud eos*: 'galoen artean'.

XIII.5. *idem = iidem*: Zesarrek nahiago du forma laburtua osoa baino.

et, si quod est admissum facinus, si caedes facta, si de hereditate, si de finibus controversia est, idem decernunt, praemia poenasque constituunt; (6) si qui aut privatus aut populus, eorum decreto non stetit, sacrificiis interdicunt. Haec poena apud eos est gravissima. (7) Quibus ita est interdictum, hi numero impiorum ac sceleratorum habentur, his omnes decedunt, aditum sermonemque defugiunt, ne quid ex contagione incommodi accipiant, neque iis petentibus ius redditur neque honos ullus communicatur.

Druiden hierarkia

(8) His autem omnibus druidibus praeest unus, qui summam inter eos habet auctoritatem. (9) Hoc mortuo, aut si qui ex reliquis excellit dignitate, succedit, aut, si sunt plures pares, suffragio druidum, nonnumquam etiam armis de principatu contendunt.

Druiden urteroko bilkura tokia

(10) Hi certo anni tempore in finibus Carnutum, quae regio totius Galliae media habetur, considunt in loco consecrato. Huc omnes undique qui controversias habent conveniunt eorumque decretis iudicisque parent.

Druidismoaren sorrera

(11) Disciplina in Britannia reperta atque inde in Galliam translata esse existimatur, (12) et nunc qui diligen-

dute eta lege-hausteren bat burutu bada, hilketaren bat egin bada, hereden-tziari edo mugei buruzko eztabaidarik bada, beraiek konpontzen dute eta sariak eta zigorrak erabakitzen dituzte. (6) Norbait, bai pribatu bai publikoa, ez bada beraien erabakira atxikitzen, sakrifizioak galerazten dizkiote. Zigor hau oso gogorra da beraien artean. (7) Horrela galerazita daudenak, errukigabe eta gaizkiletzat hartzen dira, denek ihes egiten diete, topo egitea eta elkar-ritzeta saihesten dituzte ez dezaten gaitzen bat har kutsaduraz, ez zaie justiziarik egiten nahiz eta eskatu, eta ez zaie ematen inongo ohorerik.

(8) Bestalde, druida hauen guztien buru haien artean aginpide gorena duen bakar bat izan ohi da. (9) Hau hiltzean, gainontzekoen artean duintasunean nabarmentzen bada norbait, ondorengoa izango da, edo bestela asko badira antzekoak, aginteagatik lehiatzen dira druiden arteko bozketa baten bidez, eta inoiz armez ere bai.

(10) Hauek, urteko garai jakin batean, Galia osoko erdigunetzat duten Karnutoen herrialdean biltzen dira leku kontsakratu batean. Hemen, toki guztietatik eztabaidak dituzten guztiak biltzen dira eta beraien erabakiek eta epaiek esandakoa egin behar dute.

(11) Uste da jakintza hau Britainian asmatu zela eta handik Galiara zabaldu zela, (12) eta gaur egun, hau

XIII.7. *his*: dat. / *ne*: xedezkoa. / *iis petentibus*: edizio batzuetan *his petentibus*.

XIII.8. *praeest*: druida bat da buru, besteen gainetik dago baina inongo boterarik gabe. Ikus *Druiden hierarkia* atala azalpenetan.

XIII.9. *armis de principatu contendunt*: aurrerago (VI, 14, 1) *druides a bello abesse consuerunt* dio. Ikus *Druidak eta gerra* atala azalpenetan.

XIII.10. *in loco consecrato*: beste edizio batzuetan *in luco consecrato* ematen dute. Lukanok ere *luco* dio.

XIII.11. *disciplina... reperta atque... translata existimatur*: infinitibozko perpausaren egitura pertsonala ('uste da irakaskuntza hau... asmatu zela eta... zabaldu zela.').

tius eam rem cognoscere volunt plerumque illo discendi causa proficiscuntur.

Druidak eta gerra

XIV. (1) *Druides a bello abesse consuerunt neque tributa una cum reliquis pendunt; militiae vacationem omniumque rerum habent immunitatem.* (2) *Tantis excitati praemiis, et sua sponte multi in disciplinam conveniunt et a parentibus propinquisque mittuntur.*

Druidak eta idazkera

(3) *Magnum ibi numerum versuum ediscere dicuntur. Itaque, annos non nulli XX in disciplina permanent. Neque fas esse existimant ea litteris mandare, cum in reliquis fere rebus, publicis privatisque rationibus, Graecis litteris utantur.* (4) *Id mihi duabus de causis instituisse videntur, quod neque in vulgum disciplinam efferi velint, neque eos qui discunt, litteris confisos, minus memoriae studere; quod fere plerisque accidit ut praesidio litterarum diligentiam in perdiscendo ac memoriam remittant.*

Arimaran hilezkortasuna

(5) *In primis hoc volunt persuadere: non interire animas, sed ab aliis post mortem transire ad alios, atque hoc maxime ad virtutem excitari putant, metu mortis neglecto.*

zehatzago ezagutu nahi dutenak orohar hara joaten dira ikastera.

XIV. (1) Druidak gerratik urrun egon ohi dira eta ez dute ordaintzen zer garik besteekin batera; soldadutzatik libre daude eta zerbitzu guztietatik aske. (2) Hainbeste abantailak bultzaturik, asko hurbiltzen dira ikasketetara bai bere borondatez bai gurasoek edo ahaideek bidalita.

(3) Han, diotenez, bertso-lerro kopuru handia ikasten dute buruz. Horregatik, batzuk hogeitaz aritzen dira ikasketetan. Eta ez dute uste zilegia denik idaztea, nahiz eta ia gainontzeko ekintza guztietan, harreman publiko nahiz pribatuetan, greziar hizkiak erabiltzen dituzten. (4) Hau, iruditzen zait bi arrazoengatik erabaki dutela, ez dutelako nahi ikasketak jende artean zabal daitezen ezta ikasten dutenek, idazkietan konfidantza jarriarik, memoriari ardua gutxiago eman diezaioten; hau ia gehienei gertatzen zaie, hots, idazkien laguntzaz ikasteen arreta eta memoria galtzen dutela.

(5) Batez ere hau sinestarazi nahi dute: arimak ez direla hiltzen baizik eta batzuegandik beste batzuegana pasatzen direla heriotzaren ondoren, eta honek batez ere birtuterantz bultzatzen dituela pentsatzen dute, heriotzaren beldurra galtzean.

XIII.12. *illo*: 'hara', 'Britainiara'.

XIV.1. *rerum*: 'zerbitzuak'.

XIV.2. *praemiis*: 'abantailak'.

XIV.3. *ediscere dicuntur*: infinitibozko perpausaren egitura pertsonala. / *litteris mandare*: 'idatzi'. / *cum... utantur*: perpaus kontzesiboa.

XIV.4. *instituisse videntur*: infinitibozko perpausaren egitura pertsonala. / *velint*: subjuntiboan Zesarren iritzia ematen duelako. / *ut*: aurreko *quod...* *accidit* zabaltzen du.

XIV.5. *In primis hoc*: hoc hurrengo infinitibozko perpausak azaltzen dute: *non interire... ad alios*. / *excitari*: bere subjektua inplizitua da: (*homines*).

Druiden ikasketak

(6) Multa praeterea de sideribus atque eorum motu, de mundi ac terrarum magnitudine, de rerum natura, de deorum immortalium vi ac potestate disputant et iuventuti tradunt.

Zaldunak

XV. (1) Alterum genus est equitum. Hi, cum est usus atque aliquod bellum incidit (quod fere ante Caesaris adventum quotannis accidere solebat, uti aut ipsi iniurias inferrent aut inlatas propulsarent), omnes in bello versantur, (2) atque eorum ut quisque est genere copiisque amplissimus, ita plurimos circum se ambactos clientesque habet. Hanc unam gratiam potentiamque noverunt.

Sakrifizioak

XVI. (1) Natio est omnium Gallorum admodum dedita religionibus, (2) atque, ob eam causam, qui sunt adfecti gravioribus morbis quique in proeliis periculisque versantur, aut pro victimis homines immolant aut se immolatuos vovent administrisque ad ea sacrificia druidibus utuntur, (3) quod pro vita hominis, nisi hominis vita reddatur, non posse deorum immortalium numen placari arbitrantur, publiceque eiusdem generis habent instituta

(6) Honetaz gain gauza asko eztabaibatzen dituzte astroei buruz eta haien mugimenduaren gainean, munduaren eta lurraren tamainari buruz, gauzen jatorriari buruz, jainko hilezkorren indar eta botereari buruz eta gazte jendeari helarazten dizkiote.

XV. (1) Beste pertsona-klasea zaldunena da. Hauek, beharrezkoa denean eta gerraren bat jasotzen denean (Zesarren etorrera aurretik ia urtero gertatu ohi zena, hau da, berriak erasotzen zutenean edo erasoak eragozten zituztenean), denak gerran aritzen dira, (2) eta euren arteko bakoitzak zenbat eta nobleago eta aberatsago, orduan eta *anbato* eta *kliente* gehiago ditu inguruan. Eragin eta indar bakar hau ezagutzen dute.

XVI. (1) Galoen nazio guztia erlijio-gaietan oso zaletua da (2) eta, arrazoi honegatik, gaixotasun larriak jota daudenek eta borroketan eta arriskueta dabilzanek giza biktimak sakrifikatzen dituzte edo zin egiten dute berriak sakrifikatuko dituztela eta druidak erabiltzen dituzte sakrifizio hauen arduradun gisa, (3) uste baitute gizaki baten bizitzaren ordez ez bada beste gizaki baten bizitza ematen, jainko hilezkorren borondatea ezin dela baretu, eta mota honetako sakrifizioak ofi-

XIV.6. *iuventuti tradunt*: ikus 3. oharra.

XV.1. *uti*: esplikatiboa.

XV.2. *ut... amplissimus, ita plurimos... habet*: '...zenbat eta ...ago orduan eta... gehiago dute'. / *ambactos clientesque*: 'anbato' eta 'kliente' itzuli da. *Ambactus*, -i edo *Ambacta*, -ae eta beste aldaketa batzuk Euskal Herriko esteletan sarri jasotzen diren antroponimoak dira (Gastiain, Marañon, San Roman de San Millan, Angostina, Kontrasta, Urabain...). Morfologikoki, Pokorny-ren iritzia jarraituz, Palomar Lapesa eta Lourdes Albertosek jatorri zeltikoa ematen diote hitzari, *amb<i>* aurrizkia eta *aktos* partizipioa. Esanahiaren aldetik, galo-erromatarrez *ambactus*-a 'zerbitzaria' da. M. Sevillak dio *Ambatus* antroponimoa oso zabaldua zegoela esklabuen artean eta *cognomen* gisa geratu zela manumisioren ondoren, hauen ondorengo askeek ere eraman zutelarik. Lourdes Albertos (1985) ez dago ados, beharbada horrela gertatuko zela kasu batzuetan baina ez guztietan esanez.

XVI.1. *admodum dedita religionibus*: erlijio-gaietan oso zaletua da.

XVI.2. *gravioribus morbis*: 'gaisotasun larriak'. Konparaketa absolutua da, hau da, konparaketaren beste aldean barnean du, gaixotasun normalak dira, lehen aldekoak baino arinagoak direnak.

XVI.3. *publiceque habent... instituta publica*: 'ofizialki dituzte araututa'.

sacrificia. (4) Alii immani magnitudine simulacra habent, quorum contexta viminibus membra vivis hominibus complent; quibus succensis, circumventi flamma, exanimantur homines. (5) Supplicia eorum qui in furto aut in latrocinio aut ex aliqua noxia sint comprehensi gratiora dis immortalibus esse arbitrantur; sed, cum eius generis copia defecit, etiam ad innocentium supplicia descendunt.

Galiarren jainkoak

XVII. (1) Deum maxime Mercurium colunt; huius sunt plurima simulacra; hunc omnium inventorem artium ferunt, hunc viarum atque itinerum ducem, hunc ad quaestus pecuniae mercaturasque habere vim maximam arbitrantur. Post hunc, Apollinem et Martem et Iovem et Minervam. (2) De his eandem fere quam reliquae gentes habent opinionem: Apollinem morbos depellere, Minervam operum atque artificiorum initia tradere, Iovem imperium caelestium tenere, Martem bella regere. (3) Huic, cum proelio dimicare constituerunt, ea quae bello ceperint plerumque devovent; cum superaverunt, animalia capta immolant reliquasque res in unum locum conferunt. (4) Multis in civitatibus harum rerum exstructos tumulos locis consecratis conspicari licet; (5) neque saepe accidit ut, neglecta quispiam religione, aut capta apud se occultare aut posita tollere auderet, gravissimumque ei rei supplicium cum cruciatu constitutum est.

zialki dituzte araututa. (4) Beste batzuk, zumez kordatutako gorputz-atalak gizaki biziz beteak dauzkaten izugarritzko tamainako irudiak dituzte; su ematean, sugarrek inguraturik, gizakiak hiltzen dira. (5) Litxarkeriatan, lapurretan edo beste lege-hausteren baten ondoren harrapatutakoen oinazeak gustagarriagoak gertatzen zaizkiela jainko hilezkorrei uste dute; baina, pertsona-klase honetatik nahikoa ez dagoenean, oinazeak erruga-beengana ere heltzen dira.

XVII. (1) Berezik Merkurio jainkoa gurtzen dute; honen irudi ugari dago; hau arte guztien asmatzaitzat dute, berau galtzaden eta bidaien gidaritzat, beronek duela indar handiena dirua eta merkantziak lortzeko uste dute. Honen ondoren, Apolo, Marte, Jupiter eta Minerva gurtzen dituzte. (2) Hauei buruz gainontzeko herriek duten iritzia berbera dute: Apolok gaixotasunak uxatzen dituela, Minervak lanen eta ofizioen hastapenak helarazten dituela, Jupiterrek zeruen agintea duela eta Martek gerrak zuzentzen dituela. (3) Honi, borrokatzea erabakitzen dutenean, normalean gerran harrapatutakoa eskaintzen diote; irabazten dutenean, harrapatutako animaliak sakrifikatzen dituzte eta gainontzeko gauzak leku bakar batera biltzen dituzte. (4) Herri askotan posible da leku kontsokratuetan gauza hauez eraikiriko menditxoak ikustea, (5) eta gutxitan gertatu da norbait ausartzea, erlijioari muzin eginez, hartutakoak norberak ezkututzen edo utzitakoak eramaten, eta ekintza honentzat oso zigor gogorra ezarri dute oinaze izugarriekin.

XVI.4. *simulacra*: 'irudiak'. / *succensis*: ablatibo absolutua.

XVI.5. Egitura: *arbitrantur supplicia eorum, qui... esse gratiora dis (= deis)...*

XVII.1. *ad quaestus pecuniae*: 'dirua lortzeko'.

Galoen egutegia

XVIII. (1) Galli se omnes ab Dite patre prognatos praedicant, idque ab druidibus proditum dicunt. (2) Ob eam causam spatia omnis temporis non numero dierum, sed noctium finiunt; dies natales et mensium et annorum initia sic observant, ut noctem dies subsequatur.

Realia

1.- Galia eta bertako pertsona-klaseak.

Zesarrek Galia soilik aipatzen duenean (*in omni Gallia*) Galiako zelten lurraldea aipatu nahi du. Ikus nola azaltzen duen Zesarrek berak *De bello gallico* I, 1 pasartean: «Galia osoa hiru zatitan banatzen da, haietariko batean belgikarrak bizi dira, bestean akitaniarrak eta hirugarrenean beraien hizkuntzan zeltak, gurean galoak derizatenak»¹. Eta hirugarren zati honen kokapena *De bello gallico* I, 5 pasartean: «Horietako zati batek, galoek dutela esan dena, Rodano ibaian du hasiera; Garona ibaiak, Ozeanoak eta belgikarren mugek inguratzen dute; eta Sekuanotarren eta Helveziarren lurraldeetatik Rhin ibaia ukitzen du; iparralderantz zabaltzen da»².

Zesarren esanetan, plebearen klasea alde batera utzita, Galian bi pertsona-klase daude: druidak eta zaldunak (azken hauek 16. pasartean aipatzen dira).

XVIII. (1) Galo guztiek aldarrikatzen dute beraiek Pluton aitarengandik jaiok direla, eta hau druidengandik dakitela diote. (2) Arrazoi honegatik denbora guztiaren espazioa ez dute neurtzen egunen kopuruaz, gauen kopuruaz baizik; jaiotza-egunak eta hilabete eta urteen hasierak eguna gauaren atzetik datorrela kontatzen dituzte.

Zesarrek *druida* latin izenaren forma 3. deklinabidekoa balitz bezala erabiltzen du:

- Nominatibo plurala: *druides*
- Genitibo plurala: *druidum*
- Datibo-Ablatibo plurala: *druidibus*

Singularrean ez dugu adibiderik baina **druis* litzateke.

Aro Klasikoan (K.a. I. mendea- K.o. II. mendea) gainontzeko idazleek (nahiz eta Ausoniok Zesarri jarraitu *druidum* genitiboa erabiliz) 1. deklinabidekotzat dute:

- Nominatibo plurala: *druidae*
- Akusatibo plurala: *druidas*
- Genitibo plurala: *druidarum*
- Datibo-Ablatibo plurala: *druidis*

Geroago beste aldaki batzuk ditugu.

Etimologia aldetik Plinio Zaharrak (*Historia Naturalis* XVI, 249) dio druidek ez dutela erriturik ez bada haritzaren adar bat tartean eta badirudie-la izena ere haren izen grekotik (δρῦς) eratorria dela, beraz, druida 'haritzaren

1. «Gallia est omnis divisa in partes tres, quarum unam incolunt Belgae, aliam Aquitani, tertiam quarum ipsorum lingua Celtae, nostra Galli appelluntur»

2. «Eorum una pars, quam Gallos obtinere dictus est, initium capit a flumine Rhodano; continetur Garunna flumine, Oceano, finibus Belgarum; attingit etiam ab Sequanis et Helvetiis flumen Rhenum; vergit ad Septentriones».

gizona' litzateke. Azalpen honek jarraitzaile ugari izan ditu. Baina badirudi **dru-wid-es* bezala ere bana daitekeela: *dru* (aurrizki handikari superlatiboa) eta *wid* (latineko *videre* eta grekerako ἰδεῖν-ekin du zerikusia, 'ikusi', 'jakin'). Druida orduan 'asko ikusten duena' edo 'asko dakiena' dela diote.

2.- Druidak apaiz. Sakrifizioak³

Zesarren testuari jarraituz hiru ardu-
ra dituzte druidek:

1.- *De rebus divinis*: teologia eta
espekulazio metafisikoa.

2.- *Sacrificia publica ac privata*:
sakrifizioak egitea.

3.- *Religiones*: kultuak, errituak eta
erlijio-praktikak.

Plinio Zaharrak (*Historia Naturalis*
XVI, 250-251) druiden zeremonia
baten berri ematen digu. Mihura jasoz-
tzen ikusi zituen; ilargiaren seigarren
eguna aukeratzeko dute horretarako eta
prestaketa moduan oturuntza eta bi-
zezen zurien sakrifizioa egiten dute.
Druida erropa zuriz zuhaitzera igoko
da eta urrezko igitai batez mihura adar
bat ebakiko du eta kapa zuri batean
jasoko. Zezenak orduan sakrifikatzen
dira. Urrezko igitaiak esplika-ezina
omen da, halakoa balitz oso zaila
bailitzateke mihura ebakitzea; urre-ko-
loreko brontzea normalagoa litzateke.

Asterix galoa komikian druida mihu-
ra ebakitzen azaltzen da, zuriz jantzia
eta urre koloreko igitaiak, gero, mihura
urarekin edabe majikoa egiteko.

Sakrifizioei dagokienean, Zesarrek
berak kontatzen ditu sakrifizio batzuk
(*De bello gallico* VI, 16). Informazioa
osatzeko baditugu Estrabon eta Sizi-

liako Diodororen testuak:

Erromatarrek amaiarazi zituzten
ohitura hauek eta gure legeen aurka-ko
sakrifizioak eta igarpenak tartekatzen
zituztenak; seinaleak bilatzen baitzituzten
jainkoek biktimatzat aukeratu zuten
gizakiaren heriotza-dardaretan, bizka-
rrean ezpata-kolpe bat eman ondoren.
Ez zuten inoiz sakrifiziorik egiten drui-
darik ez bazegoen aurrean. Beste giza
sakrifizio batzuk ere aipatu ohi dira:
batzuk geziztatu egiten zituzten, beste
batzuk gurutzeratu tenploetan, edo
koloso bat eraikiz lastoz eta adarrez,
mota guztietako abere, animalia eta
gizakiak sartzen zituzten honen barruan
eta holokausto bat egiten [Estrabon,
Geografia IV, 5].

Beraien sakrifizioetan izugarri erru-
kigabeak dira –haien jatorri basatiaren
ondorioz–. Horrela, gaizkileak bost urtez
gordetzen dituzte eta gero, beraien jain-
koen ohorez, paluztatu eta holokaustoak
egiten dituzte eskaintza ugariekin
batera bereziki horretarako prestatutako
su handi batzuetan. Haien guda-atxilo-
tuak erabiltzen dituzte biktima modura
jainkoak ondartzeko. Beste batzuek
ekintza bera egiten dute gudetan harra-
patutako abereekin. Gizakiekin batera
hiltzen, erretzen edo beste oinaze ba-
tzuen bidez akabatzen dituzte [Siziliako
Diodoro, *Historiak* V, 31].

Le Roux eta Guyonvarc'h-ek sailka-
tu egin dituzte sakrifizio-motak antzi-
nako idazleen testuen arabera:

1.- Odolik gabeko sakrifizioak, ar-
marik gabekoak, elementu naturalak
erabiliz:

- zintzilikatzea.
- gurutzeratzea.
- urperatzea.
- erretzea.

3. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 67-68; Pigott 1968: 109-112; Markale 1989: 179-180.

- lurperatzea.
- paluztatzea (neuk gehitua).

2.- Odolezkoak: ezpataz, lantzaz edo beste arma batez.

3.- Likidoa edo landarekia: oblazioa edo libazioa.

Beharbada gizakiak erretzearena zen erriturik arraroena erromatarren-tzat eta horregatik druidei buruz hitz egiterakoan ia gehienetan erabili ohi da. Gaur egun denetarik esaten da, batzuek onartzen dute giza sakrifizioak egiten zituztela, baina galoentzat heriotza ez zela bukaera azaltzen dute, pauso bat baizik. Beste batzuek zeharo errefusatzen dute, giza sakrifizioak ordezkatu egiten zirela eta simulakro hutsa zirela esanez.

Zaila da defendatzea druidek ez zutela parte hartzen giza sakrifizioak tartekatzen zituzten sinismen eta ihar-dueretan (K.a. I. mendean debekatu zituzten erromatarrek). Baina druidak zelta barbaroen gizarteko jakitunak ziren eta zelden erlijioa zen haien erlijioa, bere gordinkeria eta guzti.

3.- *Druidak epaile*⁴

Zelten gizartean ez da alderik zuzenbide publiko eta pribatuaren artean, ez dago gai publiko edo gai pribaturik; ez badute ezer publikorik zuzenbide pribatua da sendira, herrialdera... zabaltzen dena. Partikularren arteko iskanbilak duela eta ordalietan amaitzen zituzten eta herrialdeen artekoak gerretan. Legeak –edo ohiturak– ez dira ezer ez bada erlijioarekiko. Druiden funtzio juridikoa unibertsala da, beraiek dira jainko eta gizartearen arteko bitartekariak, jainkoen

solaskide bereziak, arau jainkotiarrek kasu partikularretara aplikatzen dituztenak. Epaiketek, erabakiek, kontratuek... jainkoen garantia dute, zuzenbide eta justiziaren zaindari bakarrak.

Ezin da eztabaidatu druidaren epaia. Druidak erabaki oker bat hartzen badu jainkoek zigortuko dute (gaixotu egiten da, itxura aldatzen zaio edo bere lurraldea antzutzen da). Inork, erregea barne, ezin dio muzin egin druidaren erabakiari. Eskomikua da zigorrik gogorrena, baina druidek badituzte beste maina batzuk, magoak baitira eta “satirak” bidal ditzakete. Zigorrik gogorrena kristauen anatemen antzekoa da:

- zigor erlijiosoa: jainkoen haserrepean geratzen baitira.
- zigor soziala: lotsa sortaraziz.
- zigor majikoa: indar misterioitsuak aurka dituelako.

4.- *Druiden hierarkia*⁵

Zesarren testuaren arabera druida guztiek ez dute maila bera, baina garrantzitsua da ikustea *praeest* hitza erabiltzen duela Zesarrek, ‘buru da’, eta ez *imperat*, *imperium*... Ez da aipatzen ez *artxidruida*-rik, ez *druida nagusi*-rik.

Suffragio druidum edo edozein motatako bozketarik ez dute gainontzeko idazleek aipatzen. Piggott-ek dio beharbada Zesarrek asmatutakoa dela apaizgo honen indar politikoari garrantzi gehiago emateko, giza sakrifizioak eta antzekoak egiten dituzten erromatar kulturaren aurkako zibilizazioa osatzen dute eta txikitu egin behar dira.

Bestalde, Zesarren testua jarraitzen badugu *summam auctoritatem* duen

4. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 77-87; Piggott 1975: 109; Markale 1989: 48-49.

5. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 48; Piggott 1975: 104; Markale 1989: 28-30.

hori *dignitate*-aren arabera dago; *dignitate*-a berdin banatuta badago aukeraketa egiten da. Ez dakigu gauza handirik aukeraketa honi buruz baina badu esanahi garrantzitsu bat: ondorengoa ez zen automatikoa ezta here-dentziaz ere; druidak ez baitira kasta bat (*brahmanak*) edo elkargo bat (*flaminak*), bakoitzaren merituez lortzen zen pertsona-klase bat baizik.

Praeest unus bi modutara uler daiteke Markale-ren ustetan. Batetik, Galiako herri bakoitzak bere druidak zituela eta druidek aukeratzen zutela herri horretako nagusia. Bestetik, herri bakoitzeko druidek druida bakar bat aukeratzen dutela Galia osorako.

Druidismoa herri zelta guztietara dago zabaldua, hizkuntzarekin batera zelden batasunaren oinarrietako bat da. Bestalde, erregeen edo hauen ordekoen ondoan betetzen duten paperaz uler daiteke euren herrian besterik ez dutela betetzen eginkizuna. Diviziako druida, adibidez, bere herriaren (eduarren) alde aritu zen beste gainontzeko herri galoen aurka.

Nahiz eta Zesarrek druidak talde bakar baten gisa aurkeztu, beste idazle batzuek barne-banaketak deskribatzen dituzte:

Siziliako Diodoro, *Historiak* V, 31, 1-3:

- *bardoak*: poeta lirikoak, ereserkiak eta satirak abesten dituzte lirekin.

- *druidak*: filosofo eta teologoak, ohorerik handienak eskaintzen zaizkie, sakrifizioetan izaten dira eta jainko eta gizakien arteko bitartekariak dira; bardo eta filosofoek borrokak baretzen dituzte.

- (*aztiak*): herri guztia beren menpe dute, igarpenak erabiltzen dituzte eta etorkizuna aurrezaten, ornitomantzia eta giza sakrifizioak egiten dituzte honetarako. *Augurium* eta *haruspicia* praktikatzen dituzte.

Estrabon, *Geografia* IV, 4:

- *bardoak*: ereserki-kantariak eta poetak.

- *vateak*: ospakizun sakratuen buru eta fisiologia edo naturaren interpretazioa egiten dutenak.

- *druidak*: naturaren zientzia, filosofia morala, justizia administratzen dute eta gerretan arbitroak dira.

Jon Mirande euskal idazleak ere bere iritzia azaltzen digu gai honen gainean, apaizen artean maila batean druidak eta beste batean *file* edo poetak bereiziz:

Druidak, batez ere, boteretsu ziren: haiek zedukaten ahalmen izpiritual guztia, erregeak ahalmen tenporalaren zati baten jabe baizik ez zirelarik, eta, erlisionearen araura, druiden peko zeuden; edozer deliberamendutan hauen aholkua hartu behar zuten. Erran gabe doa erregeek nekez jasaiten zutela teokrazia hori... Kristau misionestak ongi etorriak izan ziren beraz haientzat, eta errextasun handiak eman zizkieten druiden kaltetan eta ondorioz buruzagi tenporalen onetan beren propaganda aitzina eman ahal lezaten. Bai eta poeten onetan ere. Ezen baziren sazerdoteen erronkan, egiazko druidak baino mail beherago, *file* edo poetak. Patricius zuhurrak, druidak apaltzea gatik, fileak goratu nahi ukan zituen hierarkian, eta hauek, ezagutzaz beterik, kristau neofito suhartsu bilakatu ziren: elizgizon izendaturiko asko ere izan ziren. Hargatik poeta egon ziren eta beren herriko tradizioa ez zuten arnegatu.⁶

6. *Euzko Gogoia*, 1954ko Azilla-Lotazilla, 11-12, 183 [= *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, 1981, 228-229].

5.- *Druiden urteroko bilkura*⁷

... *in finibus Carnutum, quae regio totius Galliae media habetur*,...

Lurralde honen aukeraketa ez da arraroa, herri askotan ematen zaio garrantzia erdialdeari, orekari... Zerbait sinboliko, majiko eta sakratua da. Beharbada erdiunerik ezagunena Delfos-eko *omphalos*-a dugu eta honen antzeko irudiak aurkitu dira zelten artean ere. Oso ideia zabaldua zen erdigunearena.

Erdialde edo *omphalos* ideiatik santutegiaren ideiarra goaz, *in loco consecrato* dio Zesarrek. Baina ez dugu pentsatu behar tenplu batean, ez dago ez berri literariorik ez berri arkeologikorik hau baieztatzeko. Dirudienez zelten santutegia *nemeton*-a zen, hau da, basoaren erdialdeko agerrune sakratua. Basoaren ideia eta erdialdearena bat eginda alegia. Druidak eta basoak lotuta daude testuetan; Lukanok «*nemora alta remotis incolitis lucis*» dio, 'baso saketan, oihan urrunetan bizi zarete'. *Nemus* hitza erabiltzen du, zelten *nemeton*-ekin harremana duena. Erdialdearena toki sakratu bat delako, ez da errealki, konkretuki erdigunea izan behar, erreferentziaren arabera izango baita noski, lurraren eta zeruaren (*nem*) arteko komunikazioa dagoen tokia. *Nemeton* guztiak dira lurraren erdialdea.

Eta Zesarren *in loco consecrato*, batzuek *luco* irakurri dute, beraz kar-nutoen arteko baso batean (*nemeton*) litzateke urteroko bilera.

6.- *Druidismoaren sorrera*⁸

Zesarrek dio druidismoa edo druiden ikasketak Britainian asmatu zirela eta handik zabaldu zirela Galiara; gainera, inork zehatzago jakin nahi izatekotan Britainiara joan behar zuela ikasketak egitera.

Markale-k honen egitasuna defendatzen du, erromantizismo-garaiko iritzien aurka. XIX. mendera arte lurralde hartako harritzarrekin jartzen zuten harremanetan baina zeltek ez dute tenplurik izan erromatarren garaira arte eta harritzar horiek askoz ere zaharragoak dira. Beste batzuek sinismen hauen sorrera Ekialdera zabaldu zuten, Pitagoras-en irakuntzarekin zerikusia zutela esan, hinduismoa eta druidismoa gauza bera bi tokitan direla esan...

Baina Markale-k irlandar tradizioa (irlandar heroiak Britainiara joaten ziren ikastera) eta Zesarren testua jarraituz, Britainia zela ikasketa hauen jatorria pentsatzen du.

7.- *Druidak eta gerra*⁹

Testu hau irakurrita badirudi ezin dutela gerretan parte hartu, baina badira iritzi hau aldarazten diguten beste pasarte batzuk:

1.- *De bello gallico* VI, 13, 9: «...asko badira antzekoak, aginteagatik leihatzen dira druiden arteko bozketa baten bidez eta inoiz armez ere bai».

Beraz, inoiz armak erabiliz ere erabakitzen zen haien arteko burutza.

7. Les Roux & Guyonvarc'h 1968: 217; Pigott 1975: 104; Markale 1989: 31-32, 142-148.

8. Markale 1989: 55-73.

9. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 103-107.

2.- Galieta gudan druida bat ezagutzen dugu, Zesarren laguna, Diviziakoa, eta hau ere zaldieriaren buru eta gudaria da (*De bello gallico* II, 5).

3.- Irlandar legendek ere baieztatzen dute gerretan parte-hartze hau.

Nola azal daiteke orduan testu hau?

Le Roux - Guyonvarc'h-ek diote ez dutela inongo debekurik edo mugarik: beraiek dira erabakitzen dutenak armen bidez inplikatzeko diren edo ez. Arrazoiak dotrinak edo erlijio-ideiek ematen dituzte, ez arazo sozial edo politikoek.

Nahiz eta ez izan druiden betebeharrak nagusia, gerra betebeharrak posibleetako bat dute eta haiek erabakitzen dute etorkizun baketsua edo gerrazkoa izango duten (Diodoro V, 31 pasartean druida bakezale bat azaltzen zaigu).

8.- *Druidak eta idazkera*¹⁰

Zeltek ez digute utzi idazkirik euren hizkuntzan, grekoek eta latindarrek ez bezala, eta datu honi buruzko gaur eguneko azalpenak oso eskasak dira, zeltek ez zekitelako idazten, debekatuta zeukatela idaztea...

Zesarrek dio *neque fas esse existimantur ea litteris mandare* eta hau, ez arrasto arkeologikorik ez testualik... ez egotearekin baieztatzen da. Baina berak ere esaten du, bai hemen, bai beste pasarte batean (*De bello gallico* I, 29) greziar hizkiak erabiltzen zituztela eginkizun batzuetarako. Galiako txanponak latinez, grekoz edo leponentieraz daude idatzita; epigrafiarik

ez dago. Ez dago inon idatzirik idaztea debekatua zutenik. Le Roux-Guyonvarc'h-i arraroa iruditzen zaie jakiturarako bidea horrela galaraztea gero druida izatea irekia bazen edozeinentzat.

Administrazioan, militar-gaietan... gainontzeko herriek bezala erabiltzen dute idazkera, baina hortik kanpora haien idazkeran idaztea ez da Mendebaldeko irizpidepean egiten. Druidentzat idaztea boteretsuago eta arriskuetsuagoa zen ahotsa baino. Aparteko egoeretan besterik ez zuten erabiltzen idazkera. Zeltek Irlandan bazuten latin alfabetoa baino lehenagoko idazkera berezi bat, *ogam*, koska edo markak zeharka edo horizontalki harri baten goitik beherako ertzetan eginez gauzatzen zena. 300en bat inskripzio ezagutzen dira, oso laburrak, hitz bat edo bikoak, ia beti hildakoen izena eta bere aitarena. Idazkera ogamikoa zuhaitz adarretan eta buztin zatietan ere aurkitu ohi da; idazleak druidak ziren eta beren enkantamendu edo ariketa majikoetarako erabiltzen zituzten.

Zelten tradizioan, beraz, idazkera une erlijioso bat finkatzeko da eta betirako geratzeko, geldirik, formula majiko, heriotz-aipamen, madarika-zioak... efektibo egiteko; eguneroko bizitza, aktiboa, erreala, ezin da idazkera honetan irudikatu.

Mirandek ere badu zer esanik gai honetan:

Uste izaitzeko da Latin kultura ezagutu baino lehen Irlandarrak ez zeudela izpiritu eta entelegu laneginik batere gabe, ezen Keltak ez ziren basati batzu; aitzitik, metafisika oso landua irakasten

10. Les Roux & Guyonvarc'h 1989: 263-269.

zuten aho-mihiz, beren sazerdote druida zeritzaienek, Aitzinateko autoreen idazkietarik dakigun bezala lur handiko Keltez den bezenbatean. Druidak izaroetan ere baziren, Britanian eta Hibernian, eta haiei esker Goidelek beren oguzko kultura bat zedukaten; gainera, enda guduzale batentzat egoki den araura, epopeia eta kantu heroiko andana bat belaunetik belaunera heleraziak ezagutzen bide zituzten. Egia da hargatik mundu klasikoaren ukitzeak duela egiazko kulturaren hazia erein Irlandan. Oroz lehen Latinen ganik Goidelek idaztea ikasi zuten, egungo hizkuntzaren hiztegiak oraino erakusten duen bezala: *scriobhaim* = 'scribo'; *leghim* = 'lego'; eta beste hitzik anitz, idazteari dagokionez, latinetik datoz¹¹.

9.- Arimaren hilezkortasuna¹²

Honi buruz ditugun iturriak Zesar, *De bello gallico* VI, 14, 5, Lukano, *Farsalia* I, 450-458, Ponponio Mela III, 2, Siziliako Diodoro V, 28, 6 eta Estrabon, *Geografia* IV, 4 dira.

Guztiak doktrinaren laburpenak dira eta idazle klasikoen joera razionalista igartzen da. Ondorioa hartu zuten intentzioa balitz bezala: druidek dotrina hau irakasten zuten kemena sortzeko gudariengan. Baina gerra oso normala eta naturala zen zelden artean druidak horretaz arduratzeko.

Zesarren hitzak jarraituz pentsatu izan ohi da arimaren transmigrazioan sinisten zutela. Baina "beste leku batean" ematen da, ez mundu honetan, beraz, ez da ez metenpsikosia (elementu psikikoak gorputz batetik bestera pasatzea), ez arimaren transmigrazioa, ez berraragipena mundu

honetan.

10.- Druiden ikasketak¹³

Zesarrek eta Ponponio Melak (III, 2) esaten digute hogeitaz aritzen zirela ikasten. Autore batzuen ustetan druida bakoitzak bere espezialitatea izango luke eta sail hori besterik ez luke irakatsiko.

Metodologiari dagokionean, hogeitaz urte hauetan *magnum numerum versuum* ikasten zituzten buruz, *compendium* baten antzera oinarritzko ezagutzak, ahaztu behar ez zirenak ikasten zituzten aforismo, sententzia zehatzak eta laburrak, metaforak... erabiliz teknika mnemotekniko moduan. Gero testu labur horien azalpena edo exegesia egiten omen zuten.

Irakasten ziren gaiak ere aipatzen zaizkigu:

- Astronomia (*de sideribus atque eorum motu*): egutegia egiteko baliagarria zitzaien; Lurraren eta Ilargiaren zikloak zehazten zituzten eta hauekin jai-egunak, egun fastoak eta nefastoak erabaki...; izarrak aztertzen zituzten; guzti honetarako matematika maila-nabarmena behar zuten.

- Kosmogonia eta kosmologia (*de mundi ac terrarum magnitudine*): beharbada ez gaur eguneko geografia fisiko eta politikoa, agian geografia sakratua, gizakien eta jainkoen mundua azalduz.

- Fisiologia (*de rerum natura*): Natur Zientziak lirateke beharbada zehatzago. Druiden iharduera zientifikoak medikuntza eta enkantamenduak egiteko edabeak... lirateke, beraz,

11. *Euzko Gogoia*, 1954ko Azilla-Lotazilla, 11-12, 183 [= *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, 1981, 225-226]

12. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 270-280; Pigott 1975: 113-115; Markale 1989: 237-243.

13. Les Roux & Guyonvarc'h 1986: 57-60.

alkimia antzekoa ere sartuko litzateke sail honen barruan.

- Teologia (*de deorum immortalium vi ac potestatem*): jainkoen arteko harremanak, jainkoen eta gizakien artekoak, arimaren hilezkortasuna, beste mundua...

11.- Galoen jainkoak¹⁴

Zesarrek galoen jainkoak bere aburuz antza gehien zuten erromatar jainkoekin parekatzen ditu. Baina, zer zentzu zuen *jainko* hitzak druidentzat? Jainko hauek antzinako idazleen testuetan, heriotza- edo eskaintza-inskripzioetan, irudietan eta geroago irlandar eta galestar kondairetan ikusten ditugu. Jainko hauen izenak desberdinak dira herri batzuetatik besteetara. Zesarrek bost jainko aipatzen ditu (Merkurio, Apolo, Marte, Jupiter eta Minerva); hemendik suposatzen dute haien arteko jainkorik nagusienak bost liratekeela.

12.- Galoen egutegia

Honako hauek dira gai honi buruz

ditugun iturriak: Zesar, *De bello gallico* VI, 14; Ponponio Mela III, 2; Zesar, *De bello gallico* VI, 18 eta Plinio Zaharra, *Historia Naturalis* XVI, 249.

Galoen egutegiaren zatiak Coligny-n (Ain) aurkitu zituzten, aurreko mendearen bukaeran; zati hauek brontzeko lamina batenak dira, galoen hizkuntzan idatziak, eta behealdean zuloak zituen zintzilikaleku mugikorrek jartzeko egunak marka zituzten. Egutegi honek gaua du beti denboranitate, bost urtetarako dago prestatua eta hilabeteek eta urteek, hogeita hamar urteko mende druidikoekin bat egiten dute.

Helburu erlijiosoa, ordea, oso argia du: denbora eta denboraren neurketa, giza bizitzaren mugak, festak, urtarok... jainkoen gaiak dira eta, beraz, haien bitartekariak, druidenak.

Proba arkeologiko honek baieztatzen du Zesarrek esana (VI, 14) eza-gutza astronomiko eta matematikoei buruz.

14. Markale 1989: 73-141.

Siziliako Diodoro, *Historiak* V, 31, 2-5.

31. (...) (2) εἰσὶ δὲ παρ' αὐτοῖς καὶ ποιηταὶ μελῶν, οὓς Βάρδους ὀνομάζουσιν. οὗτοι δὲ μετ' ὀργάνων ταῖς λύραις ὁμοίῳ ἄδοντες οὓς μὲν ὑμνοῦσιν, οὓς δὲ βλασφημοῦσι. φιλόσοφοί τε τινές εἰσι καὶ θεολόγοι περιττῶς τιμώμενοι, οὓς Δρουίδας ὀνομάζουσιν. (3) χρώνται δὲ καὶ μάντεσιν, ἀποδοχῆς μεγάλης ἀξιοῦντες αὐτούς· οὗτοι δὲ διὰ τε τῆς οἰωνοσκοπίας καὶ διὰ τῆς τῶν ἱερείων θυσίας τὰ μέλλοντα προλέγουσι, καὶ πᾶν τὸ πλήθος ἔχουσιν ὑπήκοον. μάλιστα δ' ὅταν περὶ τινων μεγάλων ἐπισκέπτονται, παραδόξον καὶ ἄπιστον ἔχουσιν νόμιμον· ἄνθρωπον γὰρ κατασπείσαντες τύπτουσι μαχαίρᾳ κατὰ τὸν ὑπὲρ τὸ διάφραγμα τόπον, καὶ πεσόντος τοῦ πληγέντος ἐκ τῆς πτώσεως καὶ τοῦ σπαραγμοῦ τῶν μελῶν, ἔτι δὲ τῆς τοῦ αἵματος ῥύσεως τὸ μέλλον νοοῦσι, παλαιᾶ τινι καὶ πολυχρονίῳ παρατηρήσει περὶ τούτων πεπιστευκότες. (4) ἔθος δ' αὐτοῖς ἐστὶ μηδένα θυσίαν ποιεῖν ἄνευ φιλοσοφου· διὰ γὰρ τῶν ἐμπείρων τῆς θείας φύσεως ὥσπερ εἰ τινων ὁμοφώνων τὰ χαριστήρια τοῖς θεοῖς φασι δεῖν προσφέρειν, καὶ διὰ τούτων οἶονται δεῖν τάγαθὰ αἰτεῖσθαι. (5) οὐ μόνον δ' ἐν ταῖς εἰρηνικαῖς χρεῖαις, ἀλλὰ καὶ κατὰ τοὺς πολέμους τούτοις μάλιστα πείθονται καὶ τοῖς μελωδοῦσι ποιηταῖς, οὐ μόνον οἱ φίλοι, ἀλλὰ καὶ οἱ πολέμιοι· πολλάκις γὰρ ἐν ταῖς παρατάξεσι πλησιαζόντων ἀλλήλοις τῶν στρατοπέδων καὶ τοῖς ξίφεσιν ἀνατεταμένους καὶ ταῖς λόγχαις προβεβλημένους, εἰς τὸ μέσον οὗτοι προελθόντες παύουσιν αὐτούς, ὥσπερ τινὰ θηρία κατεπάσαντες οὕτω καὶ παρὰ τοῖς ἀγριωτάτοις βαρβάροις ὁ θυμὸς εἴκει τῇ σοφίᾳ καὶ ὁ Ἄρης αἰδεῖται τὰς Μούσας.

(...)(2) Haien artean badira bardo deritzoten poeta lirikoak ere; hauek lira-antzeko musika tresnen laguntzaz kantatzen dituzte bai ereserkiak eta bai satirak. Badira druida izeneko filosofo eta teologoak ere zeintzuei ohorerik handienak eskaintzen zaizkien. (3) Onarpen-maila zabala duten igarpenak erabiltzen dituzte; pertsona hauek hegaztiak behatuz eta biktima-sakrifizioen bidez etorkizuna aurrezaten dute, eta herri guztia euren menpe dute. Interes handiko gauzentzat seinaleak kontsultatzen dituztenean, bereziki orduan errito arraro eta sinistezin bat jarraitzen dute; izan ere, gizaki bat kontsakratu ondoren, borroka-ezpata batez jotzen dute diafragma azpian eta, erortzen denean, etorkizuna igartzen dute erorketaren modua, gorputz-atalen mugimenduak eta odolaren jarioa aztertuz; antzinako behatze-era dugu, aspaldi erabiltzen zena eta sinisten dutena. (4) Ohitura da euren artean sakrifiziorik ez egitea filosoforik ez badago aurrean, jainkoen natura ezagutu eta euren hizkuntza hitz egiten omen duten gizaki hauen bitartekotza behar dutela sinesten baitute esker oneko sakrifizioak eskaintzeko eta euren oneritzia lortzeko. (5) Ez soilik bake-beharretan, gudetan batez ere, filosofo eta poeta abeslari hauen gan jartzen dute konfidantza, ez bakarrik lagunek, etsaiek ere bai; sarritan guda-lekuetan armadak elkarrengana hurbiltzen direnean, ezpatak goian, lantzak aurrean, hauek erdiratzen dira eta baretzen dituzte, pizti batzuk enkantamenduekin egiten duten modura. Honela barbaro basatien artean ere grinaren lekua jakituriak hartzen du eta Aresek Musak errespetatzen ditu.

Estrabon, *Geografia* IV, 4, 4.

Παρά πᾶσι δ' ὡς ἐπίπαν τρία φύλα τῶν τιμωμένων διαφερόντως ἐστί, Βάρδοι τε καὶ Οὐάταις καὶ Δρυΐδαι. Βάρδοι μὲν ὕμνηται καὶ ποιηταί, Οὐάταις δὲ ἱεροποιοὶ καὶ φυσιολόγοι, Δρυΐδαι δὲ πρὸς τῇ φυσιολογίᾳ καὶ τὴν ἠθικὴν φιλοσοφίαν ἀσκοῦσι· δικαιοτάτοι δὲ νομίζονται καὶ διὰ τοῦτο πιστεύονται τὰς τε ἰδιωτικὰς κρίσεις καὶ τὰς κοινὰς, ὥστε καὶ πολέμους διήτων πρότερον καὶ παρατάττεσθαι μέλλοντας ἔπανον, τὰς δὲ φονικὰς δίκας μάλιστα τούτοις ἐπετέτραπτο δικάζειν. Ὅταν τε φορὰ τούτων ἦ, φορὰν καὶ τῆς χώρας νομίζουσιν ὑπάρχειν. Ἀφθάρτους δὲ λέγουσι καὶ οὗτοι καὶ ἄλλοι τὰς ψυχὰς καὶ τὸν κόσμον, ἐπικρατήσειν δὲ ποτε καὶ πῦρ καὶ ὕδωρ.

Ponponio Mela, *De Chorographia* III, 18-19.

Manent vestigia feritatis iam abolitae, atque ut ab ultimis caedibus temperant, ita nihilominus, ubi devotos altaribus admovere, delibant. Habent tamen et facundiam suam magistrisque sapientiae druidas. Hi terrae mundique magnitudinem et formam, motus caeli ac siderum et quid dii velint, scire profitentur. Docent multa nobilissimos gentis clam et diu, vicenis annis, aut in specu aut in abditis saltibus. Unum ex his quae praecipuiunt in vulgus effluxit, videlicet ut forent ad bella meliores, aeternas esse animas vitamque alteram ad manes. Itaque cum mortuis cremant ac defodiunt apta viventibus. Olim negotiorum ratio etiam et exactio crediti deferebatur ad inferos, erantque qui se in rogos

Galiar herri guztietan, orokorrean hitz eginez, ohore bereziaz hiru pertsona mota tratatzen dira, bardoak, vateak eta druidak. Bardoak ereserkikantariak eta poetak dira, vateak ospakizun sakratuen buru eta fisiologoak dira; druidak, fisiologiaz gain filosofiaren alde moralaz dihardute. Azken hauek pertsona zuzenentzat dituzte eta horregatik eztabaida publiko eta pribatuei buruz iritzia ematen dute. Gudei dagokienez, lehen eurek arbitratzen zituzten eta borrokak gera zitzaketen gudarako prestatzen ari zirenean, baina batez ere heriotzari buruzko gaiez arduratzen ziren. Nahiz eta azken hauetatik ugaritasuna izan, ugaritasuna euren herriari suertatu zaiola uste dute. Arimak eta unibertsoa hilezkorrak direla esaten dute—baita beste batzuek ere eurekin batera—, baina egunen batean sua eta ura nagusituko direla.

Debekatutako basatikeria baten arrastoak geratzen dira oraindik, eta nahiz eta gehiegizko sarraskirik ez duten egiten, opari-biktimak aldareetara eramaten dituztenean, gorputz-atalen bat moztzen diete. Hala ere, badute hizlaritza-moduko bat eta druidei jakituriaren maisu derizte. Hauek lurraren eta ortziaren neurria eta jitea ezagutzen dutela diote, orobat zeruaren eta astroen mugimendua, eta jainkoek nahi dutena ere bai. Galiako nobleei gauza asko erakusten dizkiete, ezkutuan, hogeitaz, egunez ere bai leize zuloetan bai ezkutuan dau den basoetan. Beraien ideietako bat zabaldua dago herrian, hots, arimak hilezkorrak direla eta badela beste bizitza bat heriotzaren ondoren, eta honek adoretuagoak egiten ditugerran. Horrenbestez arrazoi honega-

suorum velut una victuri libenter
inmitterent.

tik beren hildakoekin batera erretzen
edo lurperatzen omen dute bizitzeko
behar duten guztia: antzina beste
mundurako uzten zuten arazoak
konpontzearena eta zorrak ordain-
tzearena. Batzuek beren ahaideen
hileta-sutara ere botatzen zuten beren
burua beraiekin bizitzera joango balira
bezala.

Lukano, *Farsalia* I, 447 - 462.

Vos quoque, qui fortes animas belloque peremptas
laudibus in longum vates dimittitis aevum,
plurima securi fudistis carmina, bardi.
Et vos barbaricos ritus moremque sinistrum
sacrorum, druidae, positis repetistis ab armis.
Solis nosse deos et caeli numina vobis
aut solis nescire datum; nemora alta remotis
incolitis lucis; vobis auctoribus umbrae
non tacitas Erebi sedes Ditisque profundi
pallida regna petunt: regit idem spiritus artus
orbe alio; longae, canitis si cognita, vitae
mors media est. Certe populi, quos despicit arctos,
felices errore suo, quos ille timorum
maximus haut urguet, leti metus. Inde ruendi
in ferrum mens prona viris animaeque capaces
mortis, et ignavum rediturae parcere vitae.

Baita zuek ere, arima adoretu eta
gudak hondatutakoak laudorioekin
etorkizun luze batera daramatzazuen
vateok, beldurrik gabe poema ugari
zabaldu zenituzten, bardoek. Eta zuek,
druidok, armetatik urrun errito
barbaroak eta sakrifizioen ohitura
beldurgarria jarraitu zenituzten. Zuei
soilik eskaini zaizue jainkoak eta
zeruko jainkotasunak ezagutzea edo
zuei soilik ez ezagutzea; baso
sakonetan oihan urrunetan bizi zarete;
zuen ustez itzalak ez doaz Ereborn
etxalde isiletara ezta lurrazpiko
Plutonon erreinu zurbiletara: izpiritu
berberak gobernatzen ditu gorputz-
atalak beste mundu batean; ezagutzen
dituzuen gauzak abesten badituzue
heriotza bizitza luze baten erdiunea
da. Dударik gabe, Hartzak begiratzen
dituen herriak zoriontsu dira euren
okerrean, izan ere, beldurrik handie-
nak ere ez ditu estutzen, heriotzaren
beldurrak. Horregatik armetarantz za-
letua doan nahia, hiltzeko gai diren ari-
mak eta horregatik itzuliko den
bizitzarekin zikoizkeriatan aritzea
koldarra iruditzea.

**Plinio Zaharra, *Historia Naturalis*
XVI, 249 - 251.**

(249) Non est omittenda in hac re et Galliarum admiratio. Nihil habent Druidae –ita suos appellant magos– visco et arbore, in qua gignatur, si modo sit robur, sacratius. Iam per se roborum eligunt lucos nec ulla sacra sine earum fronde conficiunt, ut inde appellati quoque interpretatione Graeca possint Druidae videri. Enimvero quidquid adgnascatur illis e caelo missum putant signumque esse electae ab ipso deo arboris. (250) Est autem id rarum admodum inventu et repertum magna religione petitur et ante omnia sexta luna, quae principia mensum annorumque his facit et saeculi post tricesimum annum, quia iam virium abunde habeat nec sit sui dimidia. Omnia sanantem appellant suo vocabulo. Sacrificio epulisque rite sub arbore comparatis duos admovent candidi coloris tauros quorum cornutum primum vinciantur. (251) Sacerdos candida veste cultus arborem scandit, falce aurea demetit: candido id excipitur sago. Tum deinde victimas immolant, precantes suum donum deus prosperum faciat iis quibus dederit. Fecunditatem eo potō dari cuicumque animalium sterili arbitrantur, contra venena esse omnia remedio. Tanta gentium in rebus frivolis plerumque religio est.

(249) Ez dugu ahaztu behar galoen mirespena ere gai honen gainean. Druidek –horrela deitzen diete beren magoei– ez dute ezer sakratuagorik mihura eta hau ernarazten duen arbola baino, hau haritza bada behintzat. Orduan, honegatik haritz-baso sakratuak aukeratzen dituzte eta ez da ospakizun sakraturik egiten ez bada haren hostorik, nahiz eta posible dirudien druida izenak greziar etimologia izatea. Izan ere, arbola hauetan hazitako edozer zerutik bidalia dela pentsatzen dute eta jainkoak berak zuhaitzaren aukera egin duelako seinalea dela. (250) Hala ere, arraroa da hau aurkitzea eta, aurkitzen dute-nean, erlijio zeremonia handi batean jasotzen dute Ilargiaren seigarren egunean –Ilargiak ematen baitie hasiera, haien artean, hilabetei, urteei eta hogeita hamar urte dirauten mendeei– dagoeneko indar franko duelako bere erdibidean egon gabe. Beren hizkuntzan ‘dena sendatzen duena’ deitzen diete. Arbola azpian errituaren arabera sakrifizioa eta oturuntza prestatu ondoren, adarrak lehen aldiz uztartzen zaizkien zuri koloreko bi zezen ekartzen dituzte. (251) Apaiza erropa zuriz arbolara igo eta urrezko igitai batez moztzen du mihura: soingaineko zuri batean jasotzen da. Orduan, biktimak sakrifikatzen dituzte otoi-tza egiten duten bitartean jainkoak opariak aproposak aurki ditzan eskaini dituzten haientzat. Uste dute mihurak, edari-modura hartuta, emankortasuna emango diela animalia antzuei eta pozoi guztien aurkako erremedioa dela. Hainbestekoa da herriek sarritan fundamenturik gabeko gauzetan oinarritzen duten erlijioa!

Plinio Zaharra, *Historia Naturalis* XXX, 13.

Gallias utique possedit, et quidem ad nostram memoriam. Namque Tiberii Caesaris principatus sustulit Druidas eorum et hoc genus vatium medicorumque. Sed quid ego haec commemorem in arte Oceanum quoque transgressa et ad naturae inane pervecta? Britannia hodieque eam attonita celebrat tantis caerimoniis ut dedisse Persis videri possit. Adeo ista toto mundo consensere, quamquam discordi et sibi ignoto, nec satis aestimari potest quantum Romanis debeatur qui sustulere monstra in quibus hominem occidere religiosissimum erat, mandis vero etiam saluberrimum.

Amiano Marzelino XV, 9, 8.

Per haec loca hominibus paulatim excultis, viguere studia laudabilium doctrinarum, inchoata per bardos et euhagis et drysidas. Et Bardi quidem fortia virorum illustrium facta, heroicis composita versibus, cum dulcibus lyrae modulis cantitarunt, Euhages vero scrutantes sublimia, leges naturae pandere conabantur internas. Drysidae ingeniis celsiores, ut auctoritas Pythagorae decrevit...

(Majiak), bereziki, Galietako jabe-goa hartua du, dudarik gabe, gaurko garaira arte. Izan ere, Tiberio enperadorearen aginduak menperatu zituen bere druidak eta jite honetako vate eta medikuak. Baina, zergatik gogoratzen ditut nik gertakizun hauek, Ozeanoa gurutzatu eta lurralderik hutsenetara heldu den arte bati buruzkoak? Gaur egun ere Britainiak, txunditurik, hainbeste zeremonia ospatzen ditu ezen baliteke Pertsiarrei pasatu izatea iruditzea. Eta gainera, mundu guztitik zehar herriak hain ados daude berarekin, nahiz eta haserre egon eta euren artean ezezagunak izan, ezen ezin da nahikoa estimatu zenbat zor zaien erromatarrei kultu higuigarri hauek egotzi zituztelako zeinetan gizaki bat hiltzea oso erlijioso zen eta jatea oso osasungarria.

Hala ere leku hauetan estimagarriak diren zientzien ikasketak bardoekin, vateekin eta druidekin hasi ziren eta gizaki landuek zabaldu zituzten. Bardoek liraren doinu gozoez abesten zuten, gizon ospetsuen ekitaldi adoretzuei buruzko kantu heroikoak konposatuz; ovateak naturaren sekreturik ezkutuenen eta gertakizunen ikerketetan saiatzen ziren; druidak hauek baino talentu handiagokoak dira, Pitagorasen iritziz...

II eranskina: Klaudio enperadorea druidismoari buruz ¹⁵

Sarrera

(...) Gure aliatu frantses zibilizatuen artean kopuru zabal bati erromatar hiritartasuna ematekotan nengoan, baina zibilizazioaren aurrerapen antolatua eragozten zuen ipar Frantziako elementu bakarra druiden kultua zen, oraindik bizirik zirauen erlijio majikoa, nahiz eta guk ahalegin guztiak egin gogoia kentzeko edo erreprimitzeko, Britainiako hezkuntza druidikoko ikasguneei esker, handik ekarria baitzen jatorriz. Galo gazteak Britainiara joaten ziren heziera majikoaren bila, naturaltasun osoz, hispaniar gazteak Erromara doazen bezala legeak ikastera edo erromatar gazteak Atenasera filosofia ikastera edo greziar gazteak Alexandriara zirujia ikastera. Druidismoa ezin zitekeen erraz konpondu greziar edo erromatar erlijio kultuekin giza sakrifizioak eta nigromantzia sartzen baitzituen eta, honen ondorioz, druidek, nahiz eta gerlariak ez izan apaizak baino, gure aurkako etengabeko errebelamendua bultzatzen zuten. (...)

Iturriak

(...) Komenigarria litzateke hemen druidismoaren ezaugarririk garrantzitsuenak laburki azaltzea, sinismen zeltikoen eta bertakoen arteko fusioa den erlijioarenak. Ez dut bermatzen zehaztasunak egi direnik, ditudan informeak elkarren kontrakoak baitira. Ezin da idatzirik gorde druiden tradizioa eta zigor izugarriekin mehatxatzen dute misteriorik txikiena ere ezagutarazten duena. Nire kontaketa erlijioaren apostata nabarmenen

adierazpenetan oinarritzen da, baina hauen artean ez dago apaiz druidarik. Inoiz ez da lortu druida kontsakratu bat misterio ezkutuak konta ditzan konbentzitzea, ezta torturapean ere.

Etimologia eta druidismoaren jainkoak

Druida hitzak 'haritzaren gizona' esan nahi du, hau baita arbola sakratua. Euren urte sakratua haritzaren kimu berriekin hasten da eta hostoen erortzearekin amaitu. Bada jainko bat, Tanaro izenekoa, haritza duena sinbolo. Bera da tximista baten bitartez mihura sortarazten duena haritzaren adarrean, sorginkeraren eta gaixotasun guztien aurkako sendagai subiranoa. Bada Eguzkiaren jainko bat ere, Mabon izenekoa, zezen zuria duena sinbolo. Eta gainera Lug dago, medikuntza, poesia eta arteen jainkoa; bere sinboloa sugea da. Baina hauek guztiak pertsona bera dira Bizitzaren jainko bat Heriotzean, itxura ezberdinetan gurtua, Osiris Egipton moduan. Osiris urtero uren jainko batek itotzen duen gisan, era berean jainko hirukoitz hau urtero Ilunpearen eta Uraren jainkoak, bere osaba Nodon-ek, hiltzen du, eta bere arreba Sulis-ek, Sendapenaren jainkosak, Isisen mailakoak, berpizten du. Nodons, hiru metro t'erdiko olatu handi baten gisan azaltzen da, eta erregulariki Severn-en ahora heltzen da, mendebaldeko ibaien artetik garrantzitsuena, berrogeita hamar kilometroraino uztetan eta etxebizitzetan hondamen gogorak eraginez.

Druiden elkarte ezkutuak

Druiden erlijioa ez dute tribuek, tribu legez, praktikatzen, taldea borrokalaria-taldeak direlako erregeak edo nobleak

15. Graves 1988, 266-273-tik itzulia eta moldatua.

buru dituztela, baizik eta animalia sakratu batzuen izenak dituzten hamahiru elkarte ezkutuk, eta bakoitzeko kideak tribu ezberdinetakoak dira. Bakoitza jaiotzen den hilabeteak –hamahiru hilabeteako urtea dute– erabakitzen du zein elkartetako izango den. Badira Kastoreak eta Arratoiak, Otsoak, Untziak, Basakatuak, Hontzak eta abar; elkarte bakoitzak bere tradizioak ditu eta druida bat du buru. Artxidruidak gobernatzen du kultu guztia. Druidak ez dute parte hartzen borroketan eta borrokan ari diren elkarte bereko kideek elkarri lagundu behar diote.

Arimaren hilezkortasuna

Druiden erlijioaren misterioek giza arimaren hilezkortasunaren sinismenarekin dute zerikusia, eta hau baieztatzeko naturarekiko analogia ugari eskaintzen dituzte. Bata Eguzkiaren eguneroko heriotza eta eguneroko birjaiotza, bestea haritzaren hostoen urteroko heriotza eta urteroko birjaiotza; beste bat gehiago, gariaren urteroko segatzea eta haziaren urteroko fruitua. Gizakia hiltzen denenan, diotenez, mendebalderantz doa, eguzkia sartzean bezala, Atlantikoko uharte sakratu batzuetan bizitzera berriro jaiotzeko unea iritsi arte.

Uharte osoan aldare sakratuak daude, *trikuharri* izenez ezagunak, harri zapala zutik dauden beste bi edo gehiagoren gainean. Elkarteetako sarbide-zeremonietan erabiltzen dira. Druidagaia harri zapalaren gainean etzaten da eta usteko sakrifizio bat egiten da. Artifizio majiko baten bidez, buru den druidak burua moztu diola dirudi eta odolatan aurrean daudenei erakusten zaie. Burua berriz gorputzari lotzen zaio eta ustezko gorpua trikuhariaren azpian jartzen da, hilobian

legez, mihura ezpain artean duelarik. Otoitz eta enkantamendu ugariaren ondoren gizaki berria sortzen da, amasabeletik ateratzen den umearen gisa, eta aitapontekoengandik bizitza berriaren gaineko argitasunak jasotzen ditu. Trikuharri huez gain badira zutikako aldareak, harrizkoak, errito falikoei eskainiak, zelten Osirisek baduelako honetan ere egitoarren antza.

Elkarteen barruko mailak

Elkarteetan mailak, zutik bere arbasoen trikuhariaren harri zapalaren gainean, gizakiak jainkoari egiten dizkion sakrifizio-kopuruak erabakitzen ditu, edo borrokan akabatzen dituen etsaien kopuruak edota gerra-gurdien gidari, koblakari, borrokalari, poeta edo arpajolez urteroko erlijio-jokoetan irabazten dituen ohoreek. Maila-zeremonietan erabiltzen dituzten maskarek eta apaingarriak azaltzen dute, eta glastoaren (zingirako landarea) zukuz eginiko diseinu urdinak, zeinez gorputz osoa margotzen duten.

Ikasketak

Apaiz druidak euren elkarte ezkutuetan mailarik gorena lortu duten gazteen artean eta jainkoen mesedeen seinaleren bat jaso dutenen artean biltzen dituzte. Baina honen aurretik hogeitaz hamar urtez ikasketak gogorretan aritzen dira druiden eskola batean eta hautagai guztiak ez dira onartuak izaten beharrezko diren hogeita hamabi mailatan. Lehen hiru urteetan gainontzeko elkarte sekretuetan sarbidean aritzen dira, buruz ikasten dituzte poesia mitologikoaren saga luzeak, eta honez gainera legeak, musika eta astronomia. Hurrengo hiru urteetan medikuntzan dihardute. Gero, hiru urtez, auguratze eta ariketa majikoak ikasten dituzte.

Druida izateko probak

Apaizgorako hautagaiei jartzen zaizkien probak oso gogorak dira. Adibidez, poema bat konposatzea da probetako bat. Druidagaiak, biluzik, gau osoa pasatu behar dute hilkutxa-antzeko batean, kutxa hori betetzen duen uretatik kanpora sudurra soilik dutelarik eta harrizarrak dituztela bular gainean. Egoera honetan poema luze bat konposatu behar dute neurri bardi-koen neurri zail ugariatatik zailenetan, kutxan sartzen denean ematen dioten gai bati buruz. Irtetean, hurrengo goizean, poemarekin batera konposatu duen doinu batez poema arpaz kantatzeko gai izan behar du. Beste proba batean, druiden bilkura aurrean egon behar dute, hauek galderak egiten dizkiete bertso-lerroz enigma-itxuraz eta beste enigma batzuk proposatuz erantzun behar dute, hauek ere bertso-lerroz. Enigma hauek poema sakratuetako pasarte ilunekin dute zerikusia, druida-gaiak ondo ezagutzen dituela suposatzen baita. Guzti honez gain lanbroa eta haize majikoak sortzen jakin behar du eta mota guztietako nigromantzia mainak egiten.

Druiden majiaren adibide bat

Druiden majiarekin izan dudan nire harreman bakarraz hitz egingo dut hemen. Behin druida bati eskatu nion bere trebetasunak erakuts ziezaizkidan. Hiru ilar lehor eskatu zituen eta iladan jarri zituen nire esku-ahur irekian.

- Besoa mugitu gabe –esan zuen– putz egin al diezaiokezu erdiko ilarrari ondoko biak mugitu gabe?

Saiatu nintzen baina, jakina, ezin izan nuen, putz egiterakoan hiru ilarrak mugitzen nituelako. Druidak hartu eta bere esku-ahurrean jarri zituen. Gero alboko bieie esku bereko atzamar

erakuslearekin eta atzamar txikiarekin eutsi zien eta erdikoari erraz egin zion putz. Haserretu egin nintzen ziria sartu zidala ikusi nuenean.

- Edozeinek egin dezake hori –esan nuen–. Hori ez da majia.

Berriz eman zizkidan ilarrak.

- Proba ezazu –agindu zidan.

Berak egin zuena saiatu nintzen egiten baina nire haserretako konturatu nintzen ez bakarrik ezin nuela erdiko ilarrari putz egiteko behar nuen beste arnasik hartu –nere birikek bat-batean gogortuak ziruditen–, baizik eta atzamarrak luzatu nahi izan nituenean ere ezin izan nuela egin. Ahurraren kontra gogor estuturik zeuden eta atzazalak haragian sartzen ziren pixkanaka; honela nekez eutsi nion oihu egiteko gogoari. Izerdia aurpegitik zeridan.

- Hain erraza al da egitea? –galdetu zidan.

- Ez druida bat aurrean dagoenean –erantzun nion mingostasunez. Eskumuturra ukitu zidan eta nire atzamarrak lasaitzen hasi ziren.

Druida izateko azken probak

Azkenurreko proban, druidagaiak urteko gaurik luzeena *Eserleku arriskutsua* izeneko harri mugikor baten gainean pasa behar du; harri hau uhartearen mendebaldeko mendi batean, amildegi sakon baten gainean, orekan dago. Izpiritu maltzurrek gau osoz hitz egiten diote eta oreka galazten diote. Ez du txintik erantzun behar, jainkoei oititzak eta laudorio-kantuak zuzendu baino. Froga hau pasatzen badu azkena egiten uzten diote, hau da, pozoin-kopa bat edaten du, heriotz-sinkope batean erortzen da eta bitarte horretan Hildakoen Uharte bisitatzen du; handik, druida aztertzailea konbentzitzeko bere bisitaren frogak ekartzen ditu, Heriotzean Bizi-

tzaren jainkoak bere apaiztzat onartu duela diotenak.

Apaiz druiden arteko mailak

Apaiz druiden artean hiru maila daude. Proba guztiak pasa dituztenak daude, benetako druidak. Gero bardoak datoz, poesia probak gainditu dituztenak baina igartzapenean, medikuntzan eta majian aztertzaileak bete ez dituztenak. Eta amaitzeko, azken proba hauetan aztertzaileek onartu dituztenak baina poesi probak gainditu ez dituztenak daude, ovate edo entzule izenez ezagunak dira. Bihotz ausarta behar da azken proba hauetan izena emateko, izan ere, bost druidagatik hiruren heriotza dakarte, esaten didatenez, eta horrela gehienek poeta edo ovate graduekin nahikoa dute.

Druiden betebeharrak eta sakrifizioak

Druidak, erlijio publiko eta pribatuaren legegileak, epaileak eta fiskalak dira eta ezar dezaketen zigorrak nagusiena errito sakratuetan parte hartzea debekatzea da. Eskomiku hau betirako galtzearen parekoa da –errito haietan parte hartuz soilik eskura dezaketelako hiltzean birjaiotzearen itxaropena–, druidak ahalguztidunak dira eta tonto bat bakarrik ausartuko litzateke aurre egiten. Bost urtero nazio-garbitze handi bat egiten dute (...) eta nazio-pekatuak garbitzeko giza biktimak erretzen dira bizirik giza itxura duten zumezko kaiola handietan. Biktimak bidelapur, eraile, erlijio sekretuak ezagutarazi dituztenak edo antzeko lege-hausteren batean errudun direnak dira, baita druidek salatu dituztenak ere, majian ilegalki bere helburu partikularren alde aritu direlako uzta galarazten edo honekin izurritea eragiten. Garai hartan, erromatar

erlijioa besarkatzen zuen edozein edo ezkontzaz hori egin zuen sendi batekin harremanetan sartzen zena zigortzen zuten druidek. Pentsatzen dut eskubi-dea zutela hori egiteko. Baina pertsona horiek bizirik erretzen zituztenean iritsia zen lekzio bat emateko unea.

Leku sakratuak

Bi leku dituzte bereziki sailduak. Lehenengoa Anglesey uhartea, mendebaldeko kostaldean; han neguko bilkuneak daude, haritz sakratu basoen artean, eta haritz-enborren su sakratua pizturik mantentzen da. Su hau, hasiera batean tximista batek piztua, hilotzak erretzeko banatzen da hauen berraragipena ziurtatzeko. Beste leku sakratua Britainia erdian dagoen harrizko tenplutzar bat da, hiru harriz edo harri batez eginiko aldare handiz osatzen diren borobil kontzentrikoak. Heriotzean Bizitzaren jainkoari eskainia dago eta udaberriko ekinozioaren arabera kalkulatu dute Urte Berritik udako solstiziora arte, han ospatzen dituzte urteroko erlijio-Jokoak. Gazte ilegorri bat aukeratzen dute jainkoaren papera egiteko eta erropa ederrez janzten dute. Jokoek dirauten bitartean nahi duena egiteko libre dago. Dena dago bere esku eta bitxi bat edo arma bat gustatzen bazaio, jabea ohoretua sentitzen da eta pozik ematen dio. Neska gazterik ederrenak bere jolaskide dira eta lehiaketetan parte hartzen duten atleta eta musikariek ahalegin guztiak egiten dituzte haren oniritzia lortzeko. Baina udako solstizioa baino zertxobait lehenago, Heriotzaren jainkoaren ordezkaria den artxidruidekin mihura duen haritz batera doaz. Artxidruida arbolarara igotzen da eta urrezko igitai batez mihura moztu du, lurrera eror ez dadin zainduz. Mihura hori gero misteriozki zimeltzen den haritzaren

arima da. Zezen zuri bat sakrifikatzen da. Gaztea hostoz estalitako haritz-adarretan biltzen dute eta tenplura eramaten; hemen, solstizio eguneko egunsentian eguzkiak harrizko galtzadaren batean ematen du eta aldare nagusia argitzen du non gaztea etzanda eta lotuta dagoen eta artxidruidak mihura adar zorroztu batez sakrifikatzen duen. Ez dakit zer gertatzen den gero momentuz sakrifizio-harriaren gainean eta usteltzeko itxurarik gabe geratzen den gorpuarekin. Baina Sulis-en apaiz emakumea, senda-urak dauden *Sulis-en Urak* deritzan mendebaldeko herri batekoa, bere bila dator udazkeneko agur-jaialdira eta orduan emakume apaizak bizitza itzultzen diola suposatzen da. Jainkoa txalupaz doa, diotenez, Nodons bizi den mendebaldeko uhartera eta han borroka gogor baten ondoren garaitzen du. Neguko ekaitzak borroka horren zaratak dira. Hurrengo urtean biktima berriaren itxurapean berragertzen da. Zimeldutako haritzak enbor berriak ematen ditu sakraturako. Udazkeneko agur-jaialdian elkarte bakoitzak bere tribuaren animalia sakrifikatzen du, animaliaz beteriko zumezko kaiola bat errez eta honekin batera erritoetan erabilitako maskara eta apaingarri guztiak erretzen dira. Harrizko tenplu horretan druida berrien sarbide-zeremonia zaila ospatzen da. Haur jaio berriak sakrifikatu behar direla diote. Tenplua nekropoli handi baten erdian dago, druidak eta maila goreneko pertsonak han lurperatzen dituztelako berraragipena ziurtatzen duten zeremoniekin.

Badira borrokaren britainiar jainko eta jainkosak baina oso harreman gutxi dute druiden erlijioarekin eta gure Marte eta Belonarekin nahikoa antza dute berriz deskribatzen aritzeko.

Frantzian druidismoaren erdigunea Dreux-en zegoen, Parisetik mendebaldera Kanaletik ehun eta hogeita hamar kilometrora. Han giza sakrifizioak egiten iharduten zuten, erromatar zibilizaziorik egon ez balitz bezala. Druidak Tanaro jainkoari sakrifizioan eskainitako biktimen gorputzak irekitzen omen zituzten auguratze bila, zuk edo nik ahari edo oilo sakratu batekin sentituko genukeen bezain nazka gutxirekin!!

Erromatar enperadoreen harremanak druidismoarekin

Augusto ez zen saiatu druidismoarekin amaitzen. Erromatar hiritarrei soilik debekatu zien elkarte ezkutuetan parte hartzea edo druiden sakrifizioetara joatea. Tiberio Frantzian druiden ordena desegiten zuen ediktu bat kale-ratzera arriskatu zen, baina ediktua ez zen literalki betetzeko baizik eta druiden bilkurek jartzen zituzten zigorrei edo hartzen zituen erabakiei ofizialtasuna kentzeko.

Druidak jarraitu zuten Frantzian buruko minak ematen nahiz eta tribu askok utzita izan kultua eta gure erromatar erlijioa hartua izan. Erabakia nuen artxidruidekin tratu bat egitea Britainia konkista nezanean. Britainian bere kultura ospatzeko baimenaren trukean (hala ere Erromaren aurkako predikurik egin gabe), uko egin behar ziokeen druiden ordenaren sarbidean frantziar gazteak onartzeari eta ez zukeen utzi behar britainiar druidak Kanala gurutza zezaten. Apaizik gabe erlijioa pixkanaka hilko zen denbora laburrean Frantzian, non nik neuk utziko nukeen legez kanpo giza sakrifizioak tartekatzen dituen edozein ospakizun eta hilketa leporatuko niekeen parte hartzaile guztiei. Luzera,

druidismoa Britainian ere egotzi beharko litzateke baina momentuz ez

zegoen horretan pentsatzeko beharrik¹⁶.

III eranskina: *Quidam Gallorum...*

ASTERIX heros noster est, qui subiit haec pericula. Ab ei viro bellicoso humili statura ingenioque callido omnia periculosa mandata sine ulla dubitatione committuntur. Vim plus quam humanam ex potione magica Panoramigis Druidae trahit...

OBELIX inseparabilis Asterigis amicus est. Munus eius est ingentes cippos comportare, valde amat carnem aprorum. Obelix semper paratus est omnia ex manibus demittere, ut Asterigem ad novum periculum subeundum sequatur, dummodo apri et acerrimae rixae appareant.

PANORAMIX venerabilis vici Druida, visca secat potionesque magicas miscet. Imprimis potio quaedam, quae vires incredibiles tribuit, popularissima est atque gratissima vicanis. At Panoramigi etiam aliorum potuum praecepta sunt...

ASURACENTURIX bardus est. Iudicia de eius indole diversa sunt: ipse se ingeniosum iudicat, omnes ceteri cantus eius incredibiles esse sentiunt. At cum nihil dicit, sodalis hilaris atque alacer est, ab omnibus magni aestimatus...

ASTERIX arrisku hauei aurre egiten dien gure heroia da. Gizon borrokalari honek, tamainaz txikia eta izatez azkarra, agindu arriskutsu guztiak bere gain hartzen ditu inongo zalantzarik gabe. Neurrigabeko indarra Panoramix druidaren edabe majikotik ateratzen du...

OBELIX Asterixen lagun mina da. Bere lana harriztar ikaragarriak garraiatzea da; izugarri gustatzen zaio basurde-okela. Obelix beti prest dago eskuartean darabilen guztia uzteko Asterixen atzetik joateko arrisku berri bati aurre egitera, baldin eta basurdeak eta liskar gogorrak badira tartean.

PANORAMIX herrixkako druida agurgarriak, mihura-adarrak ebaki eta edabe majikoak prestatzen ditu. Batez ere sinestezinezko indarra ematen duen edabe bat da oso ezaguna eta oso pozgarria herritarrentzat. Baina Panoramixek baditu beste edabe batzuen errezetak ere...

ASURAZENTURIX bardoa da. Bere talentuaren gainean hainbat iritzi daude: berak bere burua apartatzen dauka, gainerantzeko guztiek bere kantuak jasanezinak direla uste dute. Baina ezer ez duenean esaten, lagun alaia eta prestua da, denek biziki estimatzen dute...

16. Gravesen oharra: «...Britainiar druidismoaren ikuspegi onargarri bat lortzearen, gai honi buruzko klasikoen garaiko berri urriak osatzeko arkeologia, zelten literatura eta oraindik zeremonietarako trikuharriak eta menhirrak erabiltzen dituzten Hebrida Berrietako kultura megalitiko berriaren kontakizunetatik hartutako datuak jaso ditut (...).».

ABRARACURCIX postremo princeps civitatis est. Augustus, fortissimus, suspiciosus homo rei militaris peritissimus a suis colitur, timetur autem ab hostibus. Abraracurcix nihil timet nisi hoc unum: ne caelum in caput cadat. At ut ipse dicit: «Nondum omnium dierum sol occidit».

IV eranskina: Gaur eguneko druidak

Markaleren esanetan 1985ean ba omen ziren milioiren bat druida eta garrantzitsuenak lau druida-kofradia omen ziren.

Lehenengoa, John Toland (1669-1722) irlandar katolikoak sorturikoa 1717an eta *Druid Order* izenez ezagutzen dena. William Blake poeta, elkarte sekretu esoterikoaren moduko adar druidiko honen partaidea izan omen zen eta eragin nabaria izan zuen taldean.

Bigarrena Henry Hurlek fundatu zuen 1781an *Ancient Order of Druids* izenarekin. Talde honek egitura masonikoa omen zuen eta giza arazoez arduratzen omen zen.

Hirugarren joera, druiden eta bardoen *Gorsedd*-a (bilkura), lolo Morganwg-ek sortu omen zuen 1792an. Bilkura hau druidismoaren ia adar ofizialtzat izango dute eta gaur eguneko «Britainiako Druida, Bardo eta Ovatteen Anaiarteak» ba omen du harekin zerikusia.

Laugarren taldea aurrekoekin zerikusirik ez duten kofradiek, anaiarteek, taldeek edo sektek osatzen dute. Bat aukeratzekotan *Berreginiko Eliza Zelta* aipatuko genuke, kristau ortodoxiaren

ABRARAKURZIX, azkenik, hiriko buruzagia da. Handiosoa, oso kementsua, susmaria, gai militarretan oso aditua, beretarrek ohoretzen dute, etsaiek, ordea, beldur diote. Abrarakurzix ez du ezerk beldurtzen gauza bakar batek izan ezik: zerua buru gainera eroriko ote zaion. Baina berak dioen bezala: «Oraindik eguneroko eguzkia ez da erori».

barnean, baina zelden kristautasunaren bitartez antzinako druidismoaren eta erlijio berriaren arteko harmonia bilatzen duena. Patrizio deunak irlandar *filli*-ak (igerleak) apaiz eta gotzain izendatu omen zituen, beraz, bi tradizioak bateratzen zituzten.

Ikertzaile guztiak bat datoz zelden gizarterik gabe ezin dela druidismorik eman baieztatzerakoan, druidek ez dute funtziorik ez bada zelden gizartearen barnean, hau desagertzerakoan druidak ere desagertuko lirатеke. Baina, non leudeke druidismoaren oinarriak? Horien bila ibiliko lirатеke talde hauek guztiak.

Jon Mirande ere talde hauetako baten partaide izan omen zen, eta bere lagun batek honako hau kontatzen du oso umore onez:

Les Sociétés Savantes hotel zikin zaharra lurrera botatzen ari dira; laister *up to date* etxeek lekua hartuko dute. Denbora batean *Druiden Eliza paganoak* hor izan zuen bere egoitza; lehen burua Morvan Marchal zen, ni Bard-handi laguntzaile eta Jon Mirande Gutuatra zintzoa zen; Jef le Penven-ek, berriz, abertzale bezala presondegi frantsesetan egonik, gure harmoniuna jotzen zuen diru egiteko. Ostirale guziz han biltzen ginen keltiku egiak sakonki

sarrerazteko. Gure biltokia Pio V-garrenaren mezaren ihakina zen, asmatutako keltiku zahar, *kymreg* ('gales'), *brezoneg* ('bretoin') hizkuntza zatiekin. Rober Mercier "Brennos" kazetaria zen gure ovata; harekin beti adiskidantza galerna-tsua izan dugu. Ez zitzaion druida soinekoa jaunztea gogoko; gure elizkizunen gibelean sakrilegiu bat bezala sentitzen zuen, eta ez zebilen guztiz erraturik, Marchal, Jon eta nik asmatu azken benedikzioeak keltiku zahar makarronikuan honela erraten baitzuen: «Forti estos etic forton suou matron, meion ueketen more». Gure iniziatu adiskideei aitortzen genien esan nahia: «aluak zarete eta zuen amaren alua itsasoa baino sakonagoa da».

Klerikal enpresa guztietan bezala ohi den diru-bilketaz kanpo, bigarren bilketa "hauzoko txiroentzat" egiten genuen, eta

Marchal "Artonouios"-ek: «Anaiok, txindiari hots atera iozue» («Mes frères, faites résonner le bronze») ziola, denak druidesa pollit bati beren kadirak ordaintzera behartuak ziren. 1901-eko legearen arauera, zuzenki deklaraturiko taldea ginen eta talde joria, zeren Brennos-ek 450 liberatan Saint Oueneko merkatuan erosi ezti-ardo pittarra bat, liturgia saildian sakratu hidromel bezala 900 liberatan saltzen genien gure sinesteei. Hala, burutzen genuen esanaz: «Zoazte Lugus-en irakastera erresuma guziei»; gero druida artzain guziak ikusten ziren auzoko ostatuan asetzen, sinestorren osasunean. Ez ote Voltaire horren idazlea: «Lehen artzaina, lehen zozoak lehen maltzurra topatu duenean sortu da». Halere sinestle asko genuen, beti gehiago eskatzen¹⁷.

Erabilitako bibliografia

- Constans, L.A. (1926): *César, Guerre des Gaules V-VIII*, Les Belles Lettres, Paris.
- Du Pontet, R. (1962): *C. Iuli Caesaris De bello gallico*, Oxford Classical Texts.
- Duval, P.M. (1989): *Travaux sur la Gaule (1946-1986)*, Vol. I, Coll. de l'école française de Rome, 116.
- García Yebra, V. eta Escolar, H. (1982): *César, Guerra de las Galias V-VI-VII*, Textos Clásicos Anotados Gredos, Madril.
- Graves, R. (1988): *Claudio el dios y su esposa Mesalina*, Ediciones Orbis, Bartzelona.
- Grenier, A. (1970): *Les Galois*, Ed. Payot, Paris.
- Les Roux, F. eta Guyonvarc'h, C.J. (1986): *Les Druides*, Ed. Ouest-France.
- Llywelyn, M. (1994): *El Druida*. Círculo de Lectores, Bartzelona.
- Markale, J. (1989): *Druidas. Tradiciones y dioses de los celtas*, Taurus Humanidades. Madril.
- (1992): *Los Celtas y la civilización celta*, Taurus Humanidades, Madril.
- Mirande, J. (1981): *Jon Miranderen Idazlan Hautatuak*, Gero-Mensajero, Bilbo.
- Pernoud, R. (1968): *Les Galois*, Ed. du Seuil, Paris.
- Piggot, St. (1975): *The Druids*, Thames and Hudson, London.

17. Goulvenn Pennaod, "De Viris Illustribus: Mirande'tar Jon", *La Bretagne Réelle* (Bretainiako aldizkari inkonformista) [= *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, 1981, 275-276].